



[jakinbai.eus](http://jakinbai.eus)  
[heziraul.eus](http://heziraul.eus)  
[lhdualaeuskaraz.eus](http://lhdualaeuskaraz.eus)  
 ☎ 943 376 532  
[jakinbai@jakinbai.eus](mailto:jakinbai@jakinbai.eus)

## LANBIDE HEZIKETAKO MATERIAL BERRIAK

### Material berriak

#### Protesi osoak

Liburuak leial izaten jarraitzen du azaroaren 18ko 1687/2011 Errege Dekretuan ezarritako edukiekin, non Hortz-protesietako Goi-mailako Teknikariaren tituluaren ezartzen den eta tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen diren, eta duela gutxi eguneratu denarekin apirilaren 18ko 287/2023 Errege Dekretuan ezarritakoekin, non hezkuntza-sistemako lanbideheziketako titulu batzuk eguneratzen diren; besteak beste, Osasunaren lanbide-erloko Hortzprotesietako Goi-mailako Teknikariarena, eta haren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dira.

Jakinbai Laneki — 2024/12/19



#### Protesien diseinu funtzionala

Protesien diseinu funtzionala lanbide-moduluak funtzio hauek egiteko beharrezko informazioa jasotzen du: produktua definitu eta diseinatzea, kalitatea kontrolatu eta mantentzea, eta hortz protesien laborategi bateko prebentzioa, segurtasuna eta babesa.

Jakinbai Laneki — 2024/12/19



#### EGOERA FISIKOA BALORATZEKO ETA ISTRIPUETAN ESKU HARTZEKO JARDUNBIDEA

Egoera fisikoa baloratzeko eta istripuetan esku hartzeko jardunbidea izeneko lanbide modulua Gizarte eta Kirol Animazioko eta Irakaskuntzako goi-mailako teknikariaren tituluko eta Egokitzapen Fisikoko goi-mailako teknikariaren tituluko funtsezko moduluetako bat da, titulu horiek lortzeko ikasiko diren edukietako askoren oinarria da-eta.

Jakinbai Laneki — 2024/12/19



#### Euskadiko Lanbide Heziketa Solidarioa. 1. Gida

Gida honen helburua Euskadiko LHko ikastetxeetan egindako ekintza solidarioak partekatzea da.

Jakinbai Laneki — 2024/11/28

#### GUNEAK. HOGAR DIGITAL PROIEKTUA

Zahartze baliozko aktibo eta osasuntsurako ingurune adimendunak

Jakinbai Laneki — 2024/11/27

#### Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeetan Garapen Jasangarriko Helburuak jorratzeko gida praktikoa

Gida honen helburua nagusia da beren estrategia Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrotatu behar duten Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxei jarraibideak ematea.

Jakinbai Laneki — 2024/11/27



#### Proiektuen irakaskuntzarako gidaliburua

Liburu honen edukia ikastaro jakin baterako diseinatua dagoen arren ("Barne-diseinuko Proiektuak", IDarte-n), esperientzia hau hainbat diziplina eta testuinguru pedagogikotara zabaldu daiteke; idazleak garatutako testuak eta dokumentuak ere bai. Liburu honek honako kontu hauek biltzen ditu: ariketen enuntziatuak, ariketa bakoitzaren xedea eta helburua, bilakaera eta prozesua, ebaluazio-irizpideak eta kompetentzia pedagogikoak. Testuak ariketa bakoitzaren oinarri diren dokumentu teorikoei buruzko azalpen bat ere jasotzen du. Hori dela eta, liburu honek "Gidaliburua" izena hartu du, ez baita ariketen bilduma soil. Izan ere, ikasleei osorik entregatu zaien garapena dokumentu akademiko arunt bat baino sakonagoa da. Bertan, oinarriko erreferentzia metodologikoa une oro azaltzen baita.

Jakinbai Laneki — 2024/11/22



#### Proiektuak ikasgaiak euskal kulturaren ikuspuntutik aberastuta

Lan hau, Proiektuen Irakaskuntzarako Gidaliburuaren osagarri txiki bat da. 2017an IRALE R600 ikastaroan egindako lana jasotzen du. Proiektuak ikasgaiak euskal kulturaren ikuspuntutik hedatzeko eta aberasteko bidea jorratzen du. Material hau honako ikasketak hauetako Proiektuak ikasgaietarako sortua izan da. • Arkitektura Gradua • Barrualdeen Diseinua, Goi-mailako Arte-irakaskuntzetan Gradua • Dekorazio-lanen proiektuak eta zuzendaritza, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza Profesionaletako Goi-mailako Heziketa Zikloa

Jakinbai Laneki — 2024/11/06





[jakinbai.eus](http://jakinbai.eus)  
[heziraul.eus](http://heziraul.eus)

[lhdualaeuskaraz.eus](http://lhdualaeuskaraz.eus)

☎ 943 376 532

[jakinbai@jakinbai.eus](mailto:jakinbai@jakinbai.eus)



EUSKADI  
LANBIDE HEZIKETA



## LANBIDE HEZIKETAKO MATERIAL BERRIAK

### Material berriak

#### Komunikazio-zaitasunak dituzten pertsonekin esku hartzea

Komunikazio-bitartekotzako teknikariaren tituluari dagokien goi-mailako prestakuntza-zikloaren barruan, Komunikatzeko zaitasunak dituzten pertsonetako esku-hartzea moduluen curriculumean jasotakoak dira liburu honetako edukiak. Eduki horiek ikasleak eta, oro har, komunikatzeko zaitasunak dituzten pertsonen elkarlanean aritzen diren edo jardun nahi duten guztiak prestatzen dituzte.

Jakinbai Laneki — 2024/10/25



#### Protesi partzial erazgarri metalikoak, erretxinazkoak eta mistoak

Protesi partzial erazgarria fabrikatzeko eta lortzeko prozeduren deskribapena.

Maramara\* taldea itzulpen zerbitzuak — 2024/10/07



#### Osasuna sustatzea eta pazienteari babes psikologikoa ematea

Osasunaren sustapena eta pazientearentzako laguntza psikologikoa modularako materiala

Jakinbai Laneki — 2024/10/04



#### Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik

Liburu honen edukiak bat datoz Genero Berdintasuna Sustatzeko goi-mailako teknikariaren titulu ezartzen eta haren gutbieneko irakaskuntzak finkatzen dituen urriaren 11ko 779/2013 Errege Dekretuan jasotakoekin.

Jakinbai Laneki — 2024/09/30



#### Musika-euskarridun egokitzapen fisikoko oinarritzko jarduerak

Eskuliburu honetan, Musika-euskarridun egokitzapen fisikoko oinarritzko jarduerak modulua garatzen da.

Jakinbai Laneki — 2024/09/26



#### Turismo Informazioko Zerbitzuak

Eskuliburu honek Informazio Zerbitzuen lanbide-moduluen edukiak garatzen ditu. Gida, Informazio eta Laguntzako goi-mailako prestakuntza-zikloa turismoa Turistikoak, Ostalaritza eta Turismoa lanbide-erlorkoa.

Jakinbai Laneki — 2024/09/20



#### Automatismo Hidraulikoak: makinetao eskemak

Makinetao eskemak: Multzo konpaktua G1ual (LG 1000 B1 Artezgailua) Ohiko multzoa HINE (HG-92-4000-B9 Artezgailua)

Jakinbai Laneki — 2024/09/18



#### Zeinu-hizkuntza

Esparru profesional normalizatzaile eta inklusiboan, hizkuntza horren erabiltzaileekin Espainiako zein-mintzairan komunikatzen ikasi nahi duten profesionali zuzenduta dago, bai eta komunikatzeko, mintzatzeko eta hitz egiteko zaitasunak dituzten pertsonen komunikazioa sustatzeari ere, sistema alternatibo eta handigarriak eta ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak hautatuz.

Jakinbai Laneki — 2024/09/11



#### Komunikazio- Hizkuntza- eta Hizketa-zaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen metodologia

Komunikazio, Hizkuntza eta Hizkuntzako Ezberdintasunak dituzten Pertsonak Gizarteratzeko Metodologiaren lanbide-moduluak aukera ematen du gizarteratzeko eta gizarteratzearen prozesuak aztertzeko, eta oinarritzko edukiak eskuratzen ditu esku-hartze sozialeko estrategiak garatzeko eta esku-hartzearen kontrol- eta jarraipen-jarduerak egiteko, hori funtsezko alderdia baita gure lanbide-jardunean.

Jakinbai Laneki — 2024/09/09



#### Gizarte-sentsibilizazioa eta parte-hartzea

Gizarte-sentsibilizazioa eta parte-hartzea modularako oinarritzko materiala

Jakinbai Laneki — 2024/09/09





[jakinbai.eus](http://jakinbai.eus)  
[heziraul.eus](http://heziraul.eus)  
[lhdualeuskaraz.eus](http://lhdualeuskaraz.eus)  
 ☎ 943 376 532  
[jakinbai@jakinbai.eus](mailto:jakinbai@jakinbai.eus)



**EUSKADI**  
LANBIDE HEZIKETA



## LANBIDE HEZIKETAKO MATERIAL BERRIAK

### Material berriak

#### Laneko Arriskuen Prebentzioa OSALANEN GIDAK

Osalanen Laneko Arriskuen Ebaluazioa Gida eta Segurtaguneko Seinalezapena Gida.

Jakinbai Laneki — 2024/09/09

#### Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala

Enplegarritasunerako ibilbidea modulua irakasteko bi material sortu dira: apunteak eta jarduerak-kuadernoa. Material honek Nekazaritza lanbide-familiaiko edukiak ditu. Osalanen Baratzezaintzako Lan Prozesu Seguruen Gida ere gehitu da.

Jakinbai Laneki — 2024/09/09



#### Berdintasuna Sustatzeko Esku Hartzeko eremuak

Liburu honen helburua da Berdintasuna sustatzeko esku-hartzeko eremuak lanbide-modulurako beharrezkoak diren eduki guztiak proportzionala izatea, eta, aldi berean, material interesgarria sortzea emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako sustapena profesionaltasun-zurtagiria egiteko (SSCE0212 kodea, SSC451\_3 erreferentziako lanbide-kualifikazioa), zehazki, UC1583\_3 konpetentzia-unitaterako.

Jakinbai Laneki — 2024/09/05



#### Emakumeen Jendarte Mailako Parte Hartzea

Liburu hau Genero Berdintasuna Sustatzeko Goi Mailako Teknikariaren titularen ikasketetan funtsezkoa da. Horretarako, urriaren 11ko 779/2013 Errege Dekretuaren printzipio, xede, helburu eta proposamenetan oinarritu dira egileak, haren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen baititu.


Jakinbai Laneki — 2024/09/04



#### Elikagai biziaren ekoizpena

ELIKAGAI BIZIAREN EKOIZPENA izeneko eskuliburu honen bidez, oinarritzko ezagutzak eman nahi dira ezagutza horiek eskuratzin dituen langileak fitoplanktona eta zooplanktona gainbegiratzeko edota ekoizteko lanak egin ahal izan ditzan. Elikagai biziaren ekoizpen hori, «kultibo osagarrien ekoizpena» esaten zaion hori, ezinbestekoa da arrainak, moluskuak eta krustazeoak hazteko faseak gauzatzeko, eta beharrezkoa da une oro eskatutako elikagaien kalitatea ematea, betiere segurtasun-eta higijene-baldintzetan eta ingurumena babestuz.

Euskalgintza — 2024/08/08



#### Inplanteen gaineko protesiak

Liburuan "Inplanteen gaineko protesiak" honako eginkizun hauek betetzeko beharrezkoa den informazioa biltzen da: inplanteen gaineko protesiak lantzea eta konpontzea; lantzeko eta prebentziko prozesu guztietan kalitatea kontrolatzea eta jarraipena egitea; eta landutako produktuaren eta protesiakoaren prebentzioa, segurtasuna eta babesa. Zatiak: Hortzetako inplante eta pilareak errehabilitazio protesiak. Anatomia inplantologikoa eta osteointegrazioa zer diren definitzen da, erabiltzen diren inplante eta pilareetako materialen ezaugarriak aurkezten dira, eta inplanteen errehabilitazio protesi motak sailkatu. Ferulak eta inplanteen gaineko protesiak egitea. Laneko erudialortzeko metodoak aipatzen dira, eta medikuaren aginduaren arabera hautatzen dira dagozkion gehigarriak. Ferula erradiologikoa eta kirurgikoak zer diren eta nola egiten diren azaltzen da, medikuaren agindurekin lotuta. Era berean, inplantez eutsitako protesi finkoak eta inplanteen gaineko hortzeriaren gaineko protesiak zer diren eta nola egiten diren ere azaltzen da.

Maramara\* taldea itzulpen zerbitzuak — 2024/08/08



#### Komunikazioan esku hartzeko teknikak

Hizkuntza-jabekuntzaren eta komunikazio-prozesuen, nahasmenduen eta elementuen ikuspegi orokorra; komunikazio-bitartekotza eta ebaluazioa lantzeko berezko teknikak, tresnak eta laguntza-baliabideak, eta komunikazio-bitartekotzaren figuraren eta prozesuen esku-hartzea eta antolamendua.

Maramara\* taldea itzulpen zerbitzuak — 2024/08/06



#### Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gor-itsuekin

Gor-itsutasuna kondizio berezi bat da: entzumen-eta ikusmen-gaitasunaren galera konbinatua da. Ondorioz, ezaugarri eta ondorio propioak eta premia jakinak dituen desgaitasun espezifikoa bat sortzen da. Kolektiboaren heterogeneotasuna eta desgaitasun sensorial horren berezko ezaugarriak direla-eta (ingurunearekiko elkarrekintza batez ere ukimenaren bidez gauzatzen da), esku-hartzeko komunikatiboak indibidualizatua izan behar du. Esku-hartzeko horrek, komunikazio-sistema bat garatzeaz edo mantentzeaz gain, gor-itsuen bizitzako arlo guztietan eragin behar du. Komunikazio-bitartekotzako goi-mailako teknikariak hiru talde hauekin esku hartuko du: gorrekin, gor-itsuekin eta komunikazio-, hizkuntza- eta mintzamen-nahasmenduak dituzten pertsonekin. Liburu honen ardatza komunikazio-bitartekariak gor-itsuekin egiten duen lana izango da.

Maramara\* taldea itzulpen zerbitzuak — 2024/08/02





[jakinbai.eus](http://jakinbai.eus)  
[heziraul.eus](http://heziraul.eus)  
[lhdualaeuskaraz.eus](http://lhdualaeuskaraz.eus)  
 ☎ 943 376 532  
[jakinbai@jakinbai.eus](mailto:jakinbai@jakinbai.eus)

## LANBIDE HEZIKETAKO MATERIAL BERRIAK

### Material berriak

**Laborategiko biltegitratzea eta banaketa**



Lan honen helburu nagusia etorkizuneko profesionala prestatzea da, laborategian dauden produktu kimikoak eta mikrobiologikoak antolatzen, sailkatzen eta ordenatzen jakin dezan, baita horiek erabiltzean sortzen diren hondakinak ere, produktu kimikoak eta mikrobiologikoak baitira.

Maramara\* taldea itzulpen zerbitzuak — 2024/08/02




**Planktona eta espezie urtarrak hazteko jarduerak**




Akuakultura espezie urtarrak hazteko jarduera teknikoan eta ezagutzen multzoa dela esan daiteke. Horri esker, inguru naturalean baino emaitza askoz handiagoak lortzen dira espezie baten ekoizpenean.

Euskalgintza — 2024/07/21






**Bide-hezkuntza**



Presta zaitez irakasle izateko: espezialista Gaitasun Profesionalaren Agirian (GPA), enplegurako lanbide-heziketako irakaskuntza, teleprestatuntzan aritzeko irakasle-akreditazioa, masterretako aditua, autoeskolako irakaslea eta zuzendaria, merkantzia arrisksuen irakasleen irakasle.

Euskalgintza — 2024/07/21

**Mugikortasun seguru eta jasangarria**




Presta zaitez irakasle izateko: espezialista Gaitasun Profesionalaren Agirian (GPA), enplegurako lanbide-heziketako irakaskuntza, teleprestatuntzan aritzeko irakasle-akreditazioa, masterretako aditua, autoeskolako irakaslea eta zuzendaria, merkantzia arrisksuen irakasleen irakasle.

Euskalgintza — 2024/07/21






**Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea berdintasunaren alde**




Hezkuntza funts-funtsezkoa da gizakien gaitasunak eta trebetasunak garatzeko, eta pertsonen bizitzako alderdi guztiak lantzeko modua ematen du. Gizarte- eta hezkuntza-arloko eskuhartzearen xedea zera da, berdintasun-baldintzetan oinarrituriko bizikidetzak sustatuko duen eraldaketa sozial bat eragitea, hain justu, ekintza planifikatu bidez. Egungo egoera sozial honetan, ia egunero izaten dugu emakumeen kontrako indarkeriako egoeren berri; hori horrela, beharrezkoa da gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gauzatea zenbait testuingurutan, gure gizartearen oinarriak ezartzean gizonen eta emakumeen artean berdintasun handiagoa egon dadin. Funtsezkoa da Genero Berdintasuna Sustatzeko goi-maiako teknikariak gai izatea emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren alorrean gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea identifikatzeko eta esku-hartze hori jomuga-kolektiboan ezaugarri psikosozialekin lotzeko. Gainera, egunean egon behar dute araudien, kontzeptuen eta metodologiaren ezagutzan, beren jarduketak eraginkorrak eta esku-hartzearen xede den taldearen berezitasunetara egokituak izan daitezten.

Maramara\* taldea itzulpen zerbitzuak — 2024/07/15






**Erizaintzako zainketa lagungarrien protokoloak**



Osasun-teknikaria da pazientearekin eta haren senideekin lehenbizi harremanetan jartzen den profesionala; horregatik da garrantzitsua profesional horrek ondo ezagutzea ospitalizaziounitatean sartzearekin, pazientearen unitatearekin, pazienteen beste unitate batera lekualdatzearekin edo alta ematearekin lotutako protokoloak. Biziki garrantzitsua da une oro gogoan izatea jarraian deskribatutako edozein teknika, bai eta protokoloren azken helburua ere, hau da, asistentziaren kalitatea hobetzea.

Maramara\* taldea itzulpen zerbitzuak — 2024/07/03




[jakinbai.eus](http://jakinbai.eus)  
[heziraul.eus](http://heziraul.eus)  
[lhdualaeuskaraz.eus](http://lhdualaeuskaraz.eus)  
 ☎ 943 376 532  
[jakinbai@jakinbai.eus](mailto:jakinbai@jakinbai.eus)

## LANBIDE HEZIKETAKO MATERIAL BERRIAK

### Material berriak



[26 bideotutorial](#) sortu dira / 64 bideotutorial sortuko dira

### Sareak Administrazioa eta Planifikatzea bideotutorialak

- 👤 ACL
- 👤 DHCParen konfigurazioa
- 👤 IP helbideratzea
- 👤 MARKAKETA LENGOAIA
- 👤 NATaren konfigurazioa
- 👤 SAREKO ZERBITZUAK
- 👤 SISTEMA ERAGILEAK

## 2024KO jakinbai-eus WEB ATARIAREN ASETASUN MAILA INKESTAREN EMAITZAK

- ✓ web gunearen erabilgarritasuna 7,7
- ✓ ikasmaterialaren kalitatea 7
- ✓ ikasmaterialen euskara kalitatea 8
- ✓ Web guneako ikasmaterialaren erabilera ikasgelan 7
- ✓ Lanbide Heziketa euskaratzeko, Laneki elkartearen jakinbai.eus materialak sortzeko proiektuaren beharra, nola baloratzen duzu? 9





[jakinbai.eus](http://jakinbai.eus)  
[heziraul.eus](http://heziraul.eus)  
[lhdualaeuskaraz.eus](http://lhdualaeuskaraz.eus)  
 ☎ 943 376 532  
[jakinbai@jakinbai.eus](mailto:jakinbai@jakinbai.eus)



**EUSKADI**  
LANBIDE HEZIKETA



Buruntzaldeko Udalak



**LANeki**

[jakinbai.eus](http://jakinbai.eus)